

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua kotxea duen edozein pertsonak erabil dezake, hau da, gutxi gora behera 18 eta 70 urte bitarteko pertsonak erabiltzeko sortutako aplikazio bat da. Hauek beharrezkoa dute *smartphone* bat edukitzea gure aplikazioa erabili ahal izateko beraz pertsona heldu guztiak agian ez dira gai izango aplikazioa erabiltzeko. Aplikazio hau mundu guztiarentzat erabilgarria izan daiteke, baina bereziki Donostiakoak ez direnei zuzendua dago. Hauek aplikazioaren behar handiagoa izango baitute bertakoak direnak baino.

Gure bezero garrantzitsuenak Donostiara maiz autoz joan ohi direnak izango lirateke. Bezero hauek egunero joango direnez Donostiara, Donostia ingurukoak izango dira, hau da, Gipuzkoakoak. Beraz, esan genezake gure bezero garrantzitsuenak Gipuzkoakoak direla. Honek ez du esan nahi beste lekutako jendea etorriko ez denik eta eta hauek etortzea interesatzen ez zaigunik.

Gutxi gora behera, gehienez 373.000 bezero izan genitzake. Gipuzkoak 710.000 biztanle inguru ditu eta horietatik autoa dutenak 444.000 dira. Pertsona heldu askok mugikorrik ez dutenez edota hura erabiltzeko gaitasun handirik ez dutenez, karneta duten pertsona guztietatik jubilatuen kopurua kendu dugu.

Gure produktua segmentatutako merkatuaren barnean sartuko litzateke. Izan ere, kotxea eta mugikorra duten guztien artean, Donostiakoak ez direnak, baina Gipuzkoa inguruan bizi direnak erabiliko dutelako batez ere gure aplikazioa.

Gure helburua publikoarekiko honako hau da: Guk eskaintzen duguna zerbitzu bat da eta ez da ondasun bat, beraz, zerbitzu honek aplikazioaren erabiltzaileari bizitzaren esparru batean erraztasunak ekarriko dizkio. Hau da, gure kasuan, ibilgailua modu azkar batean aparkatzen lagunduko dio denbora aurreztuaz.



Naroa Etxebeste
Beñat Rios
Asier Alkorta
Martxel Parrondo
Oihane Elizegi